

Jostailu Erakusketa Egitasmoa 2011 EUSKARAZ!

Lapetik etera berri diren jostailuak
probatzeko aukera!

txatxilipurdi



Nafarroa etorbidea 23-1goa.
tel:943795446
haurrak1@txatxilipurdi.com
www.txatxilipurdi.com

Zer da Jostailu erakusketa egitasmoa?

Arrasateko Txatxilipurdi Haur eta Gazte ekintzak elkarteak gara eta-gure helburua euskarazko aisialdi hezitzailea sustatzea da.

Gabonetan publizitate kopuru itzela egoten da, baina, hala eta guztiz ere, nabarmena da jostailuen inguruan dagoen hutsune informatiboa.

Haurrak, heldutasunera bidean, oso hurbileko laguna du jostailua. Badirudi, soilik gozamina dela, denbopasa hutsa, baina jostailua hori baino askoz gehiago da. Haurraren heziketan jostailua eta jolasa tresnak dira, alor ezberdinak lantzeko aproposak: arlo afektiboa (sentimenduen adierazpena, taldeko harremanak, autoestimua garapena...), arlo psiko-motrizia, inguruaren ezagutza...

Txatxilipurdi elkartearen helburua gurasoak jostailuaren garrantziaz kontzientziaztea da, jostailua haurra garatzeko eta heltzeko tresna dela adieraztea... Eta ez hau bakarrik, Txatxilipurdik gurasoei lagundu nahi die jostailuak haurren ezaugarrien arabera aukeratzen esterotipoak gaindituz...

Horrenbestez, aipaturiko guztian sakondu asmoz, Txatxilipurdi elkarteak aurten ere plan bat jarri du abian 6 aukerekin: hitzaldiak, jolasen tailerrak, jostailuen tailerrak, jostailu erakusketa, jostailuen ikastaroa eta sare sozialei buruzko ikastaroa.

Aukera horiek taldean edo banaka hartu daitezke; hortaz, jostailua eta jolasa denborapasak baino gehiago direla egiaztatu nahi baduzu jar zaitez harremanetan gurekin.

txatxilipurdi

Nafarroa etorbidea 23-1goa.
tel:943795446
haurrak1@txatxilipurdi.com
www.txatxilipurdi.com

Jostailu erakusketa:

Jostailu ezberdinen eskaintza zabal baten aurkezpena: euskal produktuak, kooperatiboak, sinbolikoak... jostailuak eurak eta dauzkaten arlo pedagogikoak ezagutu eta urteko jostailurik berrienak ere ikusi eta probatzeko aukera.

3 orduko saioa guraso zein hezitzaileentzat.

Hitzaldia:

Egokia al da nire haurrentzat? Ze balore transmitituko die jostailu honek?

Denda edo supermerkatuen katalogoa eta apalen artean jolasa baino gehiago ez galtzeko hainbat gomendio:

- Jolasaren garrantzia haurraren garapenean.
- Jostailua, jolasaren laguntzailea. jostailu motak.
- Jostailu on baten ezaugarriak. kontuz publizitatearekin!
- Jolasa eta gurasoen partehartzea.

txatxilipurdi

Nafarroa etorbidea 23-1goa.
tel:943795446
haurrak1@txatxilipurdi.com
www.txatxilipurdi.com

Jolas tailerra:

Jolas kooperatiboak eta euskal jolasak ezagutu eta jolasteko beta, euskal kantutegia astintzen dugun bitartean. 2 orduko saioa Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako haurrentzat.

Jostailuen tailerra:

Zaborra? Nork dio hori? Ohiko materialak beste ikuspuntu batetik ikusteko aukera, haurrei begiak irekiko dizkiena. jolasa eta birziklapena helburu eta tresna. 1,5 orduko saioa , 6-10 urte, gehienez 20 lagun.

txatxilipurdi

Nafarroa etorbidea 23-1goa.
tel:943795446
haurrak1@txatxilipurdi.com
www.txatxilipurdi.com

Ikastaroak:

“Sare sozialak deskubrituz”

Oso aktuala den gai bati buruzko informazio eta gomendio praktikoak, guraso eta hezitzaileentzako interesgarria, beraien egunerokotasunean gaia hobeto ezagutu eta haur eta gazteei laguntza eskaintzeko.

“Sortu, aukeratu eta ezagutu zure haurraren jostailuak”

Etxea jostailuz betea daukazu? Ez al dakizu zer balore pedagogiko lantzen dituen bakoitzak? Ikastaro honekin jostailu mota ezberdinak identifikatu eta hauen ezaugarriak landuko ditugu, 3 orduko saio praktiko batean. Etxean daukazun gauzekin jostailuak nola sortu erakutsiko dizugu, berziklatuz.

txatxilipurdi

Nafarroa etorbidea 23-1goa.
tel:943795446
haurrak1@txatxilipurdi.com
www.txatxilipurdi.com

Prezioak:

ERAKUSKETA 3 ordu (guraso zein hezitzaileentzat)

Egun bat.....	800€
Bi egun.....	1.180€
Hiru egun.....	1.440€

JOLAS TAILERRAK 2ordu 6-10 urtekoak. (20 lagun gehienez)

Euskal kantu eta jolasak.....	250€
Jolas kooperatiboak.....	250€

JOSTAILUEN TAILERRA 1,5 ordu 6-10 urtekoak (20 lagun gehienez)

Saio bat.....	250€
Bi saio.....	350€

HITZALDIA

“Nola egin jostailu egokia aukeratzeko” 1,5ordu.....	200€
--	------

IKASTAROAK

“Sare sozialak deskubrituz” 2ordu.....	200€
“Sortu, aukeratu eta ezagutu zure haurraren jostailuak” 3 ordu.....	210€

Prezio hauei kilometraja eta pertsonaren desplazamendua gehituko zaie:

- KILOMETRAJEA: 0,4€ kilometroko.
- DESPLAZAMENDUA: 30km: hezitzaileko 17,5€.

txatxilipurdi

Nafarroa etorbidea 23-1goa.
tel:943795446
haurrak1@txatxilipurdi.com
www.txatxilipurdi.com

Baldintzak:

ESKAERAREN KONFIRMAZIORAKO BALDINTZAK

Eskaintza honetan jasotzen den edozein zerbitzuren eskaeraren konfirmazioa zerbitzua ematen hasi baino 20 egun lehenago egitea eskatzen da. Baldintza hau betetzen ez den kasuetan, konfirmazioa jaso eta 3 eguneko epea izango du Txatxilipurdi Elkarteak bere konfirmazioa emateko.

ESKAERAREN INGURUKO DATUAK

Zerbitzua eman baino 10 egun lehenago bezeroak zerbitzuari dagokion ondoko informazioa bidali beharko du Txatxilipurdi Elkartera: data zehatza, ordutegia, tokia eta bere ezaugarriak, hartzailearen ezaugarriak eta harremanetarako pertsonaren kontaktua. informazio hau emailaz bidali beharko du eskatzaileak Txatxilipurdiren informazio orria beteaz.

ORDAINKETARI DAGOZKION BALDINTZAK

Zerbitzua bertan behera uzteko bezeroak 7 egun lehenago adierazi beharko du, bestela, Txatxilipurdi elkarteak kobratu egingo du, honako baldintzetan: azken 3 egunetan %100-a kobratuko du, 7 egun lehenagotik 3 egun lehenagora arte, %80-a kobratuko du.

BESTELAKO BALDINTZAK

-Eskatu eta konfirmaturiko zerbitzua ematera joan eta ez balitz hartzaileak azaldiko, zerbitzua %100ean ordaindu beharko du bezeroak.
-Kanpoko faktore bat tarteko (elurra, istripua...) zerbitzua ezingo balitz gauzatu, eskatzailearen eta Txatxilipurdiren artean beste data bat adostuko litzateke.

txatxilipurdi

Nafarroa etorbidea 23-1goa.
tel:943795446
haurrak1@txatxilipurdi.com
www.txatxilipurdi.com